

Etaparen testuingurua: Hezkuntzak ekintzara eramaten duenean bakarrik irekiaraz ditzake buruak eta aldaketa sortu. Hausnarketa egin daiteke banakako eta taldekako ekintza-esperientziei buruz eta, halaber, hezkuntza sustatu.

## Helburuak

### Etaparen bukaeran, honako hau lortu beharko lukete ikasleek:

- ✓ beren ekintza-aukerez ohartzea (babesa/migrazioa/aniztasunaren gaiari dagokionez),
- ✓ motibatuta egotea eta eskura dituzten aukerez baliatzeko gai izatea

## Edukia

- ✓ Eguneroko bizitzako ekintzarako abiapuntuak, aukerak eta beharrak aztertzea
- ✓ Ideiak garatzea eta lehenbiziko pausoak ematea

## Metodoak

- ✓ Bakoitzarentzat garrantzitsua eta baliotsua denari buruzko hausnarketa
- ✓ Ekintzara eraman dezaketen egoerak aztertzea, balio horietan oinarrituta eta ikastaroan barneratutako ezagutza eta esperientzien arabera
- ✓ Lehen ideiei buruzko eztabaida

## Aurreko etapen trantsizioa

Oroitarazi ikasleei asko ikasi eta esperimentatu dutela pertsona migrante eta errefuxiatuen egoerei buruz, baita denok elkarrekin ongi bizitzeko behar dugunari buruz. Gaur, ezagutza hutsetik harago joatea da helburua, ekintza zehatzari heldzea.

## 1. pausoa

### Zer bihurtu da niretzat garrantzitsua eta zer egin dezaket?

1 Etapa bakoitza hausnarketa-lan batekin bukatu da. Eskatu ikasleei, beren emaitza pertsonalak (argazkiak eta oharrak) aztertzeko, ikusteko ea zer iradokitzen duten aurrera eraman litezkeen ekintzetarako.

Adibidez, hausnarketa-lanek aintzakotzat hartu zuten zer litzatekeen bereziki garrantzitsua atzerriko herrialde batean babesari bilatu behar zuen norbaitentzat. Edo bakoitzak errefuxiatuen zein eskubide jotzen dituen bereziki garrantzitsutzat. Horrek ondorio gisa ekar dezake bakoitzak bere ekarpena egin behar duela errefuxiatuek horrelako tratua jaso dezaten.

2 Hausnartzen jarraitzeko eskatu ikasleei hurrengo galderak erantzutea:

- Zerk **hunkitu** nau gehien?
- CHANGE ondoren, ...-ri buruz **gehiago jakin** nahiko nuke.
- CHANGE ondoren, ...-ri buruz **zerbait egin** nahiko nuke.

## 2. pausoa

### Ekintzarako abiapuntuak gure egunerokoan

1 Ikasleei ondorengo azaldu:

Ekintzarako ideiak batzuk garatzeko, lehenago aldatetarako behar bat identifikatzea komenigarria da. Aldaketarako behar bat ekintzarako abiapuntu on bat da. Leku desberdinetan gauza desberdinak daude aldatzeko. Hemen dituzu adibide batzuk. Beharbada lagungarriak izango dira pentsatzeko zer gauzei ekingo diozuen aztertzeko:

- ✓ Ikastetxean edo beste leku batzuetan entzuten dituzun orokortzeak eta aurreiritziak
- ✓ Behartutako migrazioei buruzko eta zure inguruan (eskolan, auzoan) bizi diren pertsona migrante eta errefuxiatuei buruzko ezagutzarik eza
- ✓ Kontakturik eta aukerarik eza migrante/errefuxiatuen eta tokikoen arteko topaketarako
- ✓ Baliteke asilo-eskatzaileentzako harrera-zentroetako baldintzak zailak izatea eta hobetu ahal izatea. Baliteke harrera-zentro bat egotea inguruan eta hobekuntza proposamenen bat egin ahal izatea.

2

Eskatu ikasleei taldeak (4-6 ikasle) osatzeko, eta galdera hauei erantzuteko:

- Non ikusten dut aldaketarako behar bat babesarab eta migrazioa direla eta? Adibidez: nire eskolan, nire kirol taldean, nire aisialdiko taldean, nire auzoan, etab.
- Zerk behar du aldaketa bat?

3

Eskatu taldeari ekintzarako abiapuntu lista bat egiteko. Hurrengo pausuan ikasle guztiek kontutan edukiko dituzte.

4

Orain ekintzari buruz pentsatzeko momentua da. Ekintza honek aldaketa behar bati erantzun behar dio. Ikasleek ekintza arlo desberdinak aurkitu ditzakete:

1. **Topaketa eta harremanak:** errefuxiatuekin elkartzeko eta horiei laguntzeko aukera emango dizueten ekintzak, lan boluntarioen bat edo zerbitzu solidarioko proiekturen bat eginez.
2. **Sentsibilizazioa:** migrazioaren alderdi positiboez ikasitakoa partekatzeko ekintzak, sare sozialetan kanpaina txikiren bat eginez edo zuen komunitatean ekintzaren bat antolatuz.
3. **Eragina:** ikasitakoa tokiko lider politikoekin partekatzeko eta erdietsi nahi duzuen aldaketak haiekin aztertzeko.

Ikasleek beren ideiak proposatu ditzakete. Zailtasunak aurkitzen badituzte, animatu galdera hauek erantzun ditzaten ideia gehiago lortzeko:

- Nola aurkitu ditzaket migrazio edo babesarab esperientzia izan duen jendea?
- Ezagutzen al dut errefuxiatuekin edota migratzaileekin lan egiten duen erakunderik?
- Ezagutzen al dut errefuxiatuei edota migratzaileei babesarab ematen dien tokiko proiekturik edo ekimenik?

Azken urrats gisa, talde bakoitzari **ekintzarako hiru ideien zerrenda** egiteko eskatu.

### 3. pausoa

#### Planifikazioa - Nor? Noiz? Nola? Non?

Eskatu ikasleei bere ideia **ekintza plan** batean garatzea, hau dena kontutan izanda aurreikusi dituzten abiapuntuak. Poster tamainako orri batean marraztu dezakete. Ikusteko erraza izan behar da hurrengo pausoa (4. pausoa) aurkeztu behar izango dutelako.

#### Ikasleei gogorarazi ekintzak...

- ✓ errealistak izan beharko luketela eta eguneroko bizitzan inplementatu ahal izan beharko lirakeela.
- ✓ baliagarriak izan beharko luketela eta beste pertsona batzuei (errefuxiatuei, komunitateari) lagundu beharko lieketela, baina dibertigarriak izan ere. Ikasleak zer ekarpen egin dezaketen eta zer ekarpen egin nahiko luketen pentsatzera animatu, beren trebetasunak eta gaitasunak kontuan hartuta.

#### Ekintza plana:

EKINTZA PLANA		
<b>EKINTZA ESPARRUA</b> <i>(Laguntza eta babes, sentsibilizazioa edo eragina)</i>		
<b>GURE EKINTZA</b>		
<b>Ekintzaren bitartez sortu nahi dugun aldaketa (CHANGE)</b>		
<b>ZER EGIN BEHAR DUGU?</b>	<b>ZER PLANIFIKATU DUGU?</b>	<b>EMAITZAK- ZER GERTATU DA?</b>
<b>HELBURUAK:</b> <i>Zer helburu lortu nahi dugu/ditugu?</i> <i>Zer aldatuko da gure ekintzaren ostean?</i>		

<p><i>Zer aldaketa lortuko dugu?</i></p> <p><i>Azaldu helburua xehetasunez, gerora bete ote den eta zein neurritan bete den baloratzeko.</i></p>		
<p><b>HELBURU PERTSONALAK:</b></p> <p><i>Zer helburu lortu nahi ditugu guretzako?</i></p> <p><i>Zer ikasi eta praktikatu nahi dugu?</i></p> <p><i>Zer aldaketa espero dugu/ditugu guregan?</i></p>		
<p><b>EKINTZAREN DESKRIBAPENA:</b></p> <p><i>Zer egin nahi dugu?</i></p> <p><i>Azaldu ekintza eta helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduera zehatzak.</i></p>		
<p><b>PROGRAMAZIOA:</b></p> <p><i>Noiz hasiko da ekintza?</i></p> <p><i>Zer egunetan egin behar litzateke gauza bakoitza?</i></p> <p><i>Noiz amaituko da guztiz?</i></p>		
<p><b>ERANTZUKIZUNAK:</b></p> <p><i>Nor da jarduera bakoitzaren erantzulea?</i></p> <p><i>Ba al dago ekintza guztia koordinatzen duen pertsonarik?</i></p> <p><i>Guztiek al dute norberaren gaitasun eta interesen arabera zereginen bat?</i></p>		
<p><b>BALIABIDEAK:</b></p> <p><i>Zer baliabide behar ditugu gure jarduerak burutzeko eta gure helburua erdiesteko?</i></p> <p><i>Egin zerrenda bat behar dituzuen baliabide guztiekin (teknologikoak, espazio fisikoak, material gehigarriak, dirua...).</i></p>		
<p><b>BABESA:</b></p> <p><i>Zein kide, babesle edo</i></p>		

<p><i>bestelako jendek lagundu eta babestu zaitzakete?</i></p>		
<p><b>HEDAPENA:</b></p> <p><i>Nola eman dezakegu gure ekintzaren berri eta aurretiaz jakinarazi?</i></p> <p><i>Zer erreminta behar ditugu ekintza honen berri emateko? (sare sozialak, posterrak, flyerrak, etab.)</i></p>		
<p><b>EMAITZEN BERRI EMATEA:</b></p> <p><i>Nola emango dugu ekintzaren emaitzen berri?</i></p> <p><i>Ekintza egin bitartean argazkiak ateratzeko arduradun bat izendatu. Sare sozialetan streaming bat egitea edo kazetari bati ekintzaren berri emateko eskatzea ere aukera ona dira.</i></p>		

## 4. pausoa

### Ikasleek bere ekintzarako plana aurkezten dute "Aukeren Merkatuan"

Aukeren merkatua prestatu:

- Merkatuan parte hartu nahi duen ikasle talde bakoitzak bere ekintza-proposamena aurkeztuko du, nahiago duen aurkezpen-formatua erabiliz.
- Ikasleek hainbat proposamenak eta ekintza-planak ezagutuko dituzte.
- Merkatuaren helburua da ekintza-planak alderatzea, horiei buruz hitz egitea eta balorazio bat ematea.

Ondoren, ikasle bakoitzari bi ekintza-plan aukeratzeko eskatu, pentsa dezatela zein ekintzatan gustatuko litzaiekeela parte hartu eta paper batean idatz dezaten. Komentatu gelan zer ideia eta ekintza jar litezkeen martxan. Ideia asko egongo balira, botazio bat antolatu bat aukera dezaten. Boto gehien dituen ideia izango da irabazlea!

## 5. pausoa

### Ikasleek beren ekintza gauzatzen dute

Garrantzitsua da ideia/ekintza bakoitzerako ikasle arduradun bat (edo ikasle-talde txiki bat) egotea eta parte hartu nahi duten ikasle guztien izenak idaztea.

Gogoratu ikasleei honako elementu hauek:

- Ekintza-planera eta programaziora egokitzen saiatzea, nahiz eta baliteke doikuntzaren bat egin behar izatea.
- Parte-hartzaileen artean komunikatzea: hori da gakoa.
- Laguntza eta aholkua eska dezatela beren ekintzaren inplementazioan.
- Emaizten jarraipena egitea eta hainbat hedabidetan jakinaraztea: eskolako webgunean, sare sozialetan, etab.

## 6. pausoa

### Hausnarketarako gonbidapena

Nahiz eta CHANGE proiektua ekintzen planifikazioarekin bukatu, garrantzitsua da hausnarketa aurrerago egitea.

Hausnarketa honako galdera hauetan oinarritu daiteke:

- ✓ Zer lortu nahi dugu ekintzarekin?
- ✓ Zer lortu dugu? Nolako asebetetzea lortu dugu emaitzarekin?
- ✓ Nola sentitu nintzen ekintza gauzatzen nuen bitartean? Zerk poztu ninduen, zer izan zen zaila, eta zer, etsigarria?
- ✓ Zer ikasi dut ekintzatik gizarteari buruz, beste pertsoneri buruz eta nire buruari buruz?
- ✓ Aldatu egin naiz? Eta, hala bada, nola?